

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ospitaleguneko Kirurgia Handi Anbulatorioko area berriak intimitatea eta laguntzaileren batekin egotea bermatzen die pazienteei

8 box individual egokitu dituzte, 17,60 metro koadrokoa bakoitza, komunarekin eta monitorizatzeko zentralizatuarekin

Ostirala, 2017.eko martxoak 24

Nafarroako Ospitaleguneko Kirurgia Handi Anbulatorioko Unitateko instalazio berriak ditu otsailaz geroztik; horrela, hirukoiztu egin da orain arteko azalera eta, ondorioz, pazienteen intimitatea berma daiteke orain, eta pazienteek familiaren konpainia izan dezakete.

Kirurgia Handi Anbulatorioaren barruan sartzen dira anestesia

orokorrarekin, loko-erregionalarekin edo lokalarekin, sedazioarekin edo gabe, egiten diren kirurgia-prozedura terapeutikoak edo diagnostikoak, iraupen laburreko ebakuntza-ondoko zainketak behar dituztenak eta, beraz, ospitaleratze beharrik ez dutenak.


Fernando Dominguez Osasun kontseilariak Unitate berria bisitatu du, C Pabilioiaren beheko solairuan dagoena, Oscar Moracho Osasunbideako kudeatzailearekin eta Antonio Merino Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailearekin batera; bisita horretan izan dira Jon Ariceta kirurgia-prozesuen zuzendariordea, Maite Soria Osasun Zainketetako zuzendaria, Conchi Moreno Kirurgia-prozesuen Zainketetako eta Baliabide Materialen zuzendariordea, Lourdes Gomez Unitateko erizaintzako arduraduna eta bertako langileak ere.



Dominguez kontseilaria Departamentuko eta Unitateko arduradunekin.

Intimitatea eta familiaren konpainia bermatzen duten box indibidualak

Instalazio berriek argi naturala dute, eta 215 metro koadroko azalera; orain arte, 65 metro koadroko azalera zuten instalazioek. Laguntza-espazio kopurua handitu da; lehen bost zeuden, eta orain zortzi. Zentzu horretan, eta pazienteen intimitatea bermatzeko eta haien erosotasuna hobetzeko helburuz, box indibidualak egokitu dira, 17,60 metro koadrokoa bakoitza, komun eta guzti. Orain arte komun bakarra zegoen, korridorean.



Unitate berriko box indibiduala bat.

Espazio berri honetan, gainera, pazienteak senitartekoekin egon ahal izango dira Kirurgia Handi Anbulatorioko Unitatean dauden bitartean. Instalazio zaharretan ezinezkoa zen hori, espazioa oso txikia zelako.

Itxarongelari dagokionez, 34,01 metro koadroko espazio komuna da, Endoskopien Unitateko Esnatze-gelarako zein Kirurgia Handi Anbulatorioko Unitatekorako.

Bestalde, monitorizatzeko sistema zentralizatua jarri da, profesionalak errazago egin dezaten pazienteen jarraipena eta kontrola. Gainera, beren lana egiteko espazio handiagoa dute instalazio berrietan, 86 metro koadroko kontrol- eta biltegi-eremuarekin.

Unitatearen funtzionamendua

08:00etatik 17:30era arte ematen du arreta Kirurgia Handi Anbulatorioko unitate horrek. Pazientea Nafarroako Ospitaleguneko instalaziora iritsi eta harrerako langileen arreta jaso ondoren, itxarongelara laguntzen zaio.

Jarraian, erizaintzako langileek box indibidualera laguntzen diote, ebakuntzarako prestatzeko. Gero, ohatilaz eramaten dute ebakuntza-gelara.

Berriazko prozeduraren ondoren, pazienteak box indibidualera ekartzen dute berriro eta, han, ebakuntza-ondoko arreta eskaintzen diote erizainek. Pazienteak esnatze-geletako moduan monitorizatzen dira.

Dagokion denbora igaro ondoren, pazienteak eserlekura jaikitzen dute, eta laguntzaile bati uzten diote sartzen. Aho bidezko elikaduraren tolerantziaren frogak egiten zaio eta, beharrezkoa bada, baita lehenengo gertuaren kontrola ere. Azkenik, pazientearen alta kudeatzen da, etxera itzul dadin.

Unitate horretako plantilla osatzen dute bi EUDk, bi EZOTk, administrari batek, kirurgia-zerbitzu ezberdinetako pazienteentzako ebakuntza-gelako zainzaile batek eta Kardiologia Unitateko zainzaile batek, zerbitzu horretako pazienteentzako.

1.793 paziente 2016an

Kirurgia Handi Anbulatorioko unitate honek –Nafarroako Ospitalegunek beste bi ditu– 1.793 paziente artatu zituen 2016an; gehienak, ORL eta Oftalmologia espezialitateetakoak (569 eta 550, hurrenez hurren). Honako hauek izan ziren prozedurarik ohikoenak: azaleko lesioen eszizioak, begietako ebakuntzak (begi-lausoak, bitrektomiak), tinpanoko ebakuntzak (miringotomiak, miringoplastiak) eta errizolisiak (minaren tratamendua, artikulazioetako patologia batzuetan).

Eskaintzen dituen zerbitzuen artean, Otorrinolaringologiako (Entzumena), Oftalmologiako, Neurokirurgiako, Min Kronikoaren Unitateko, Dermatologiako, Erradiologia Interbentzionistako eta Kirurgia Orokorreko (kolon eta ondesteko sekzioa) espezialitateei ematen die zerbitzua. Gainera, aurreikusten denez, Bihotzaren Arearako 0 Espazio bezala lanean hasiko da apiriletik aurrera, eta pixkanaka, bere prozedurak gehitzen joango da (ez beti kirurgiakoak).